

Bainu URaK IPaR
eUSKaL HERRian

sto!p

uste komunei

 Pays
Basque
eUSKaL
HERRia

COMMUNAUTÉ
D'AGGLOMERATION

—
HIRIGUNE
ELKARGOA

—
COMUNAUTAT
D'AGLOMERACION



Bainu URak IPAR EUSKAL HERRIAN

Hauek dira gure lurraldeko erronka nagusiak: ur zikinak tratatzea eta uraren kalitatea zaintzea. Euskal Hirigune Elkargoak urte guzietz horretara bideratzen ditu 100 milioi euro baino gehiago, hau da, inbertsio guzien bi herenak!

Konkretuki gauzak baikorki kanbiatzen badira ere, hobekuntza horretaz herritar guti ohartzen dira. Irudi bortitzek, informazio faltsuek edo batzuetan sinesmen zaharrek pentsatzera ematen dute, kontrara, ez dela ezer egiten eta egoera okertzen ari dela.

Ardura entzuten diren aurreiritziei erantzun nahi izan diegu egitateak erakutsiz, gure burua zuritu gabe. Hala, uste komunak deseraikitzeke, aldatzen ari den mundu baten konplexutasuna erakusteko eta ekintzara pasatzera akuitatzeko lehen tresna gisa pentsatu dugu gidaliburu hau. Uraren zaintzea –klimaren zaintzea bezala–, ez da gai politikoa bakarrik. Izan ere, ura denen ondasuna da, eta denek defendatu behar dugu.

Jean-René Etxegaray

Euskal Hirigune Elkargoko
lehendakaria

Maidar Arosteguy

Ekonomia urdina, saneamendua
eta euri-uren lehendakariordea

Emmanuel Alzuri


Edateko ura, itsasbazterra, UIKUP eta
inguru naturalen kontseilari ordezkaria

USTE KOMUNA: IPAR EUSKAL HERRIAN, ISURBIDEETAKO URAK ITSASORA DOAZ


Bai, Baina...

baina hori arras bakan gertatzen da!

Beste edozein lekutan bezala, hemen ere, euri anitz egiten duelarik, sare bateratuek –euri-urak eta ur zikinak hodi beraren bidez araztegietara bideratzen dituzten sareek– gainezka egin dezakete. Sareak ezin duelarik euri soberakina xurgatu, ura biltegiatzen duten geriza-urmaeletara bideratzen da ura lehentanez, ondotik tratatua izateko. Ura ingurune naturalean berriz isurtzen den kasu bakanetan, isuritako urak ekai kutsatzaileen kontzentrazio ttipi bat baizik ez du. **Botatako 1 000 litro ur bakoitzeko, litro batek baizik ez du ur zikinik.**



Sare bateratua



Sare bereizia

ZER EGITEN DU EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAK?

LEHENTASUNEZKOA

Euskal Hirigune Elkargoaren lehentasunetarik bat izan da beti uraren kalitatea zaintzea. Urte guzietan horretara bideratzen ditu 100 milioi euro baino gehiago, hau da, inbertsio guzietan bi herenak. Diru horrek balio du azpiegiturak modernizatzen segitzeko: araztegiak zaharberritzea, sare bereziak eraikitzea (ur zikinak eta euri-urak bereizten dituztenak), geriza-urmaelak sortzea, sarearen bideozaintza, zunda adimentsuak ezartzea isuriak molde homogeenan banatzeko, etab.

ETA NIK?

Ura beti itsasora doa!

Euri bortitzek lurra garbitzen dituztelarik, lurretan dauden poluitzaile guziaz itsasora doaz, haien ibilbidea han bururatzen baita.

Bakoitzak aise egin dezakeen lehen gauza lurra ez zikintzea da! Animalien gorotzak, ibilgailuen hidrokarburoak, legez kanpoko hondakin botatzeak, zigarreta muturrak edo produktu kimikoak, horiek denak dira ekai kutsatzaileak, eta, azkenik, gure ibai eta hondartzetako uraren kalitatea bestelakotzen dute.



SARE BATERATUA EZ DA GEHIENGOAN!



Gaur egun, Ipar Euskal Herriko saneamendu-sistemaren % 15ek bakarrik segitzen du osoki sare bateratua izaten, hau da, sareak dituen 1 900 km hodietarik 300 kilometrok. Zailago da batez ere herri eta hiri barne zaharretan dauden hodietaria horiek zaharberritzea.

USTE KOMUNA: URMAEL GEHIAGO ERAIKI BEHAR DIRA!

ez,

ez baitezpada.

Biltegiratze-urmaelak baliabide baliosak dira zenbait lekutan, araztegiak gehiegi ez betetzeko. Baina, sistema bakar batek ere ezin izanen du zeruko ur guzia atxiki! Ipar Euskal Herrian, berotze globalaren ondorioz, gero eta eurite bortitzagoak daude, eta eurite horiek gero eta usuago gertatzen dira. Ur-masa horiek atxiki eta turrustan ez isurtzeko, erortzen diren lekutik ahal bezain hurbil sartu behar dira lurrean. Beraz, gure garapen-logika errotik aldatu behar dugu, eta ahal den leku guzietan –batez ere eremu urbanizatuenetan–, birlandarretzea sustatu behar dugu.




LANDAREDI
GEHIAGO LURSAILEAN
GERIZA-URMAELA

ISURBIDEAK AZKEN BELTZEAN

Ekaitz-isurbide bat instalatzen da sare bateratu batean, eta horrek ingurune naturalean isurtzen ditu sareak bildu edo tratatu ezin dituen euri-uren soberakinak. Baina, hori arras bakan gertatzen da (urtean hamar egunez, batez beste), eta euri anitz egiten duelarik baizik ez da gertatzen.

ZER EGITEN DU EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAK?

Euskal Hirigune Elkargoak 139 geriza-urrael kudeatzen ditu. Azpiegitura horiei esker, euri-uren soberakinak atxiki daitezke eta araztegiak ez dira osoki betetzen. Lurpean dauden urrael batzuk, hala nola Biarritzeko hondartza handikoa, katedralak bezain handiak dira. 12 metro gora neur dezakete, eta 10 000 m³ ur biltegira dezakete, hots, bost igerileku olinpiko baino gehiagoren baliokidea! Obrahorietako gehienak kostaldean daude. Eremu urbanizatuago horietan, baitezpadakoak dira saneamendu-sistemen ibilera ona bermatu eta euri-urak ahal bezain guti itsasora isurtzeko.



eta NIK?

Saneamendu-sareak ez osoki betetzeko, arau berriak plantan ezartzen ari dira pixkanaka Ipar Euskal Herrian. Arau horiek behartzen dituzte eraikuntza-proiektu bat duten jabeak lursail artifizializatuaren galera konpentsatzera. Horri euri-zonifikazio deritzo. Balizko aterabideak izan daitezke euri-uraren atxikipen-urrael bat sortzea edo gune betoiztatuak birlandaretzea. Jokabide egoki horiei esker, lurpeko ur geruzak berriz bete daitezke eta uholdeei buru egin dakieke. Jokabide egoki horiek denetan eta denek aplikatu ditzakegu.




USTE KOMUNA: IPAR EUSKAL HERRIKO ARAZTEGIAK ZAHARKITUAK DIRA!

ez,

1980ko hamarkadan eraikitako azpiegitura batzuk zaharkitzen ari badira ere.

Horregatik, 2017an sortu zenetik, Euskal Hirigune Elkargoak bere sarea modernizatzen duen plan zabal bati ekin dio. Hiru ekipamendu zaharrenak (Donibane Lohizune, Basusarri eta Maule-Bildozekoak) arauen arabera ezarri dira edo ezartzen ari dira. Beste araztegi batzuk zaharberritzeko 20 bat programa abiatu dira ere; konparazione, Baionako San Bernateko araztegiaren zaharberritzea bururatu da edo Bidarteko araztegia zaharberritzen ari dira. Estatuko eta Elkargoko zerbitzuek kontrol erregularrak egiten dituzte ekipamenduetan, eta baita erreketan isurtzen diren isurkietan. Datu guztiak linean daude eskuragarri, saneamendu kolektiboko atari nazionalen:

www.assainissement.developpement-durable.gouv.fr




ZER EGITEN DU EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAK?

Sortu zenetik, Euskal Hirigune Elkargoak 200 milioi euro baino gehiago inbertitu ditu ekipamendu zaharrenak arauen arabera eman eta sarea modernizatzen. Adibidez, osoki berreraikiko den Donibane Lohizuneko Artxiloko araztegia 45 milioi euro baino gehiago gostako da. Jokoan dagoena da, batetik, herritarren behar gero eta handiagoi erantzutea, eta, bestetik, ekai kutsatzaile gehiago tratatzea. Lehentasuna ematen zaie 16 araztegi handienei (haiek tratatzen dutelako Ipar Euskal Herriko ur zikinaren % 90). Ekipamendu estrategiko horietan, tratamendu-metodo berriek ahala ematen dute bakterioen ura desinfektatu eta azota- eta fosforo-botakinak tratatzeko.

ETA NIK?

Ipar Euskal Herriko etheen kasik laurdena ez da saneamendu-sistema kolektibo batera konektatua. Bizitegi horiek beren instalazioa eduki behar dute, ur zikinak biltegitatu eta tratatzeko. Ekipamendu horietan mantentze-lan erregularrak egin behar dira, ur zikinak ingurune naturalean ez isurtzeko. Arauen araberkotasunaren agiria eskuratu behar da, etxea eraiki edo saldu nahi delarik. 2023an, kasik 1 800 egiaztapen egin zituzten SPANC (Saneamendu Ez Kolektiboaren Zerbitzu Publikoa) erakundeko kontrolatzaileek, eta horietarik % 30 ez ziren arauen arabekoak.



LAUKIA: OIHALÑOAK, SAREETAKO GAITZA

Maiz biodegradagarri gisa zigilatuak badira ere, oihalñoek egiazki zenbait aste behar dituzte barreiatzeko. Katearen puntan, oihalñoek isurbideak lotzeko konexioak tapatzen dituzte, eta araztegi-tako urmaeletan metatzen dira. Kasu batzuetan, ekipamenduetan matxurak eragin ditzakete eta araztegia bloka dezakete. Oroit xurrutegiak, ikuzlekuak edo isurbideetako begiak ez direla zikinontziak! Horietan beraz, ez da hondakinik bota behar.

USTE KOMUNA: BAINATZECO UREN KALITATEA URTE GUZIEZ TXARTZEN ARI DA

ez,

badu 20 urte Ipar Euskal Herriko bainatzeko urak kalitate on edo bikainean sailkatuak direla.

Horretarako, Hendaia-tik Angelura, 35 bainatzeko guneren segimendu arautua egiten da. Kontrol horiek Eskualdeko Osasun Agentziak egiten ditu Estatuaren izenean. Horrela, 10 eta 20 lagin hartzeren artean egiten ditu bainatzeko gune bakoitzean, urtaro bakoitzean. Elkargoak 3 000 analisi osagarri inguru egiten ditu, urtaro bakoitzean ere. Aldi berean, bainatzeko urei buruzko araudia biziki gogortu da. Gaur egungo kutsaduraren muga mailak atzokoak baino zorrotza-goak dira, eta, beraz, urak kalitate hobea du.



USTE KOMUNA: BAINATZEAK ERI NAZAKE


Bai,

bainatzeko uretan bakterio batzuk goteak osasun-arazoak eragin ditzake.

Horietako bi, franko arinak (**Escherichia coli eta Enterococcus**), hurbiletik zaintzen dira, beste bakterio patogenoagoentzat (adibidez, estreptokokoak) markatzaile gisa balio dutelako. Klima-aldaketaren eta azaleko uren berotzearen ondorioz, fenomeno berriak eta oraindik gaizki ulertuak agertzen dira gure kostaldean. Hori da **Ostreopsis** alga mikroskopikoaren kasua. 2021eko udan azkarki garatu zen, eta eritasun anitz eragin zituen.

MAILAZ MAILAKAKO MIGRAZIOA


Badu 20 urte baino gehiago **Ostreopsis** alga mikroskopikoa Mediterraneoko itsasbaterrean dagoela. Gero, Portugaleko hegoaldean agertu zen, eta ondotik Espainian eta euskal kostaldean. Haren garapena berotze globalaren ondorioa da, eta, beraz, ez du zerikusirik saneamenduaren kudeaketarekin. Bi alga mikroskopiko mota daude, eta horietako bat, **Ovata** mota, bereziki toxikoa da.



ZER EGITEN DU EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAK?



Euskal Hirigune Elkargoak asmo handiko estrategiaren alde egin du, Estatuko kontrol ez gain, bere zaintza-sarea ere plantan ezarri baitu. Urte guzietan, 20 000 ur-analisi baino gehiago egiten dira gure hondartzetan, baina baita ibaietan gora ere, ura hartzeko iturrietan, erreketan edo araztegien aterateetan. Kutsadura bat dagoela frogatzen delarik, automatikoki erabakitzen da prebentzio gisa bainatzeko guneak hesteia.



Ernetasun bera aplikatzen da *Ostreopsis algarekin*.

Lehenbiziko seinalamenduetatik, Euskal Hirigune Elkargoak segimendua egiteko eta analisisien emaitzak jakinarazteko baliabidea plantan ezartzen du, auzapezek laster erreakzionatu ahal izan dezaten, oraingoz arauen araberako kutsaduraren muga mailarik ez badago ere. Aldi berean, mugaz gaindiko ikerketa-programa bat sortu da, Euskal Itsasbazterreko Interes Zientifikoko Elkarteak (IZE) zuzendua, fenomenoak hobeki ulertu eta herritarrek babesteko alerta maila fidagarriak izateko.

eta nik?



2024tik, denbora errealean bainatzeko uren kalitatearen berri izateko ahala ematen duen Kalilo aplikazioak, ostreopsis alertaren berri ematen du ere. Hiru ernetasun-maila daude (apala, ertaina, gora). Izan ere, alga mikroskopiko horrek belarri-sudur-zintzurretako, larruko eta arnasketako arazo larriak eragin ditzake, baita hondartzaren inguruetan ere. Alerta-kasuetan, gomendatzen zaie, batez ere pertsona ahulenei, nor bere burua arriskuan ez jartzea. Prebentzio-mezuak zabaltzen dira sokorri guneetan eta Kalilo aplikazioan. Sintomarik baduzu, galdetu medikuari edo deitu Pozoiaren kontrako zentro batera.

USTE KOMUNA: EZ DA EZER EGITEN MIKROKUTSATZAILAEN KONTRA

ez,

Aitzitik, gai horri dagokionez, Euskal Hirigune Elkargoa aitzinamenduaren puntan da.

Gaur egun, Europako araudiak zenbait kutsadura baizik ez ditu aipatzen (mikrobakterioak, fosforoa, azota, karbonoa). Baina, egiazki, agertzen ari diren 1 000 eta 15 000 kutsatzaileraren artean daude, eta oraindik ez dakigu kutsatzaile horiek zer eragin duten giza osasunean eta ekosistemetan. Konposatu kimiko berriak (kosmetiko, erremedio, detergente eta abarretatik jalgiak) agertzen dira egun guzietz, eta, ondorioz, biziki zaila da haiek identifikatu eta tratatzea.


HONDARTZEN KUTSATZEAREN KONTRA BORRAKATU

Atlantikoko zerrendan, batez beste, 700 hondakin baino gehiago daude 100 metroko hondartzako zerrendan. Kutsadura horiek guziak gure bizimoduari zuzenean lotuak dira. Alta, jestu sinple batzuren bidez, denak atxikiak garen ingurune naturalak babesten ahal genituzke: naturan deus ez botatzea, Ecolabel label europarra duten etxeko produktuak eta higiene naturalekoak erabiltzea, produktu biologikoak edo tratatu gabeak kontsumitzea eta abar.



ZER EGITEN DU EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAK?

Euskal Hirigune Elkargoa aitzindaria da mikrokutsatzaileen kontrako borrokan. Euskal Itsasbasterreko Interes Zientifikoko Elkartearen (IZE) ekintzaren bidez, Elkargoak "Micropolit" izeneko ikerketa-programa bultzatzen du 2016tik. Programa horren helburua da kutsatzaile berri horien ondorioak hobeki deskribatzea, batez ere, kutsatzaileak konbinatzen direlarik. Orduan, erraten da koktel-efektua gertatzen dela. Euskal Hirigune Elkargoak ere hondakin flotatzaileen kontra egiten du, zatikatzen direlarik mikrokutsatzaileak aska baititzakete. Hala, adibidez, herriko tresna mekanikoentzat helgarriak ez diren arroken eta hondartza zatien garbiketa bermatzen du, eta gure itsasbasterretako hondakinak biltzen dituen Kosta Garbia sindikatu mistoa finantzatzen du.



KUTSATZAILE KIMIKOEN KONTRAKO SUPERBAKTARIOAK



"Micropolit" ikerketa-proiektua bilatzen ari da agertzen ari diren poluitzaileak tratatuko dituzten aterabide berritzaileak. Etorkizun handiko aukera bat da molekula kimikoak suntsitzeko gai diren superbakterio "garbitzaileak" garatzea.



COMMUNAUTÉ
D'AGGLOMÉRATION
—
HIRIGUNE
ELKARGOA
—
COMUNAUTAT
D'AGLOMERACION

littoral@communaute-paysbasque.fr



[@communautePB](https://www.facebook.com/communautePB) | [communaute-paysbasque.fr](https://www.communaute-paysbasque.fr)